



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko urtarrilaren 23a

5. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-26/MOC-00004. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita klimaterioan eta menopausian laguntza integrala emateko foru-plan bat taxutu dezan, gehienez ere hamabi hilabeteko epean. Oihana Gallo San Román andreak aurkeztu du (3. or.).
- 11-26/MOC-00005. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kirolari buruzko forulege proiektu bat taxutzeko lanak has ditzan. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak aurkeztu du (6. or.).
- 11-26/MOC-00008. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita “Diagnostiko konplexuak dauzkaten familiei laguntza eta aholku integrala emateko figura” sor dezan. Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (7. or.).
- 11-26/MOC-00009. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita etxegabetasunari erantzuteko politiken jarraipena egiteko koordinazio-esparru egonkor bat sor dezan. Javier Arza Porras jaunak aurkeztu du (8. or.).
- 11-26/MOC-00011. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egungo landa-eskolaren egoera berriaz aztertzeke mahai bat bultzatzea dezan. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak aurkeztu du (10. or.).
- 11-26/DEC-00004. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baitu Irango diktadura-erregimenak egindako giza eskubideen urraketa larria, eraiketa masiboen bidez erantzuten ari baita herritarren berme demokratikoen eskaerari. Eledunen Batzarrak onetsi du (11. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-26/POR-00015. Galdera, indarkeria matxistako kasuen detekzio goiztiarrari buruzkoa. María Teresa Esporrín Las Heras andreak egin du (12. or.).
- 11-26/POR-00023. Galdera, Nafarroako Osasun Zerbitzuko lan-esparruko sexu-jazarpeneko kasuen ikerketari eta horietarako protokoloei buruzkoa. María Teresa Esporrín Las Heras andreak egin du (13. or.).
- 11-26/POR-00024. Galdera, migrazio-aukeraren aldeko departamentuarteko lehenbiziko batzordeari buruzkoa. María Olga Chueca Chueca andreak egin du (13. or.).

- 11-26/PES-00004. Galdera, 3x3 saskibaloiko Liceo Monjardín taldeko jokalariek goi-mailako kirolari izaera edukitzearen baldintza betetzeari buruzkoa. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egin du (14. or.).
- 11-26/PES-00005. Galdera, biktimak babestearren hartutako neurriei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (14. or.).
- 11-26/PES-00006. Galdera, O-NOZeko lan-giroari buruzko azken inkestan sexu-jazarpenerako komentarioak egin direla-eta hartutako neurriei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (15. or.).
- 11-26/PES-00007. Galdera, kotizaziopeko pentsioen eta alargun-pentsioen gutxienerako osagarriak bultzatzeari buruzkoa. Miguel Garrido Sola jaunak egin du (15. or.).
- 11-26/PES-00008. Galdera, Antxon Alonso Egurrola jaunarekin izandako bilereari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (16. or.).
- 11-26/PES-00009. Galdera, “Lur-bankua” ekimenari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (16. or.).
- 11-26/PES-00010. Galdera, Nafarroako Inbertsio Institutuak sektore estrategikoak sendotze aldera inbertsio berri bat egiteari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (17. or.).
- 11-26/PES-00011. Galdera, LH Dualeko ikasle errepikatzaileen lantoki-prestakuntzarako neurriei buruzkoa. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (18. or.).
- 11-26/PES-00012. Galdera, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioaren hezkuntza-eskaintza handitzeari buruzkoa. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (18. or.).
- 11-26/PES-00013. Galdera, Nagoreko mahaia deitzeari buruzkoa. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (19. or.).
- 11-26/PES-00014. Galdera, eko-herrixketako espazio komunuen kudeaketari eta erregularizazioari buruzkoa. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (19. or.).
- 11-26/PES-00015. Galdera, Virgen del Camino Ikastetxe Integratuko ikasleen lantokiko prestakuntzari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (20. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-26/REPA-00001. Talde parlamentarioek 2026. urtean jasoko dituzten dirulaguntzak (21. or.).
- 11-26/REPA-00003. Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 2026. urterako ordainsariak (21. or.).
- 11-26/REPA-00003. Foru parlamentarien 2026. urterako ordainsariak (22. or.).
- 11-26/REPA-00004. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioek eta kontratudunek 2026. urtean jasoko dituzten ordainsariak (22. or.).
- 11-26/REPA-00004. Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileek 2026. urtean jasoko dituzten ordainsariak (23. or.).
- 11-26/REPA-00006. Foru parlamentarietako nahiz Legebiltzarraren zerbitzuko langileek egindako bidaia ofizialengatiko 2026. urterako ordainsari-araubidea (23. or.).
- 11-26/REPA-00006. Foru parlamentarien ordainsariei buruzko arauen 9.4 artikulua aldatzea (24. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

**11-26/MOC-00004. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-
tzen baita klimaterioan eta menopausian laguntza integrala emateko
foru-plan bat taxutu dezan, gehienez ere hamabi hilabeteko epean**

OIHANA GALLO SAN ROMÁN ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Oihana Gallo San Román andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita klimaterioan eta menopausian laguntza integrala emateko foru-plan bat taxutu dezan, gehienez ere hamabi hilabeteko epean.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Oihana Gallo San Román andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Azken urteotan, klimaterioa eta menopausia igarotzen ari diren emakumeek hitza hartu dute Nafarroan, hamarkadetan ikusezin egon den errealitate bat izendatzeko.

Mugimendu feministak eta kultura menstrualean espezializatutako erakundeek (La Vida en Rojo elkarteak, esate baterako) menopausian eta klimaterioan laguntza sanitario integrala eta kalitatezkoa eskatzeko kanpaina bat bultzatu dute.

La Vida en Rojok eta beste entitate batzuek sustatutako gida eta eskabide-eredua ideia xume baina erabakigarri batetik abiatzen dira: klimaterioa eta menopausia ez dira arazo indibidual bat, baizik eta osasun publikoko eta eskubideen arloko auzi bat, genero-ikuspegitik eta ikuspegi interseksionaletik jorratu behar dena.

Errebindikazio hori hilekoaren eta ugalketaren arloko eskubideen esparru zabalago batean kokatzen da. Feminismoek adierazi ohi dutenez, gizarte batek hilekoa, perimenopausia eta menopausia tratatzeko duen moduak agerian uzten du zenbateraino onartzen duen emakumeak eta hilekoa duten pertsonak zuzenbideko subjektuak direla. Tabu menstruala, pobrezia menstruala, ikerketa espezifikorik eza, medikuntzaren ikuspegi androzentrikoa eta politika publiko sendorik eza fenomeno beraren aurpegiak dira: emakumeen gorputzarekin lotutako prozesuen egiturazko gutxiespena bizi-ziklo osoan zehar.

Klimaterioa eta menopausia, gainera, desberdin bizi dira emakume bakoitzaren posizio sozialaren arabera: ez da gauza bera etapa hori lan prekarioarekin edo pentsio eskasarekin igarotzea, osasun-baliabide gutxiago dituen landa-ingurune batean edo migratzailea, arrazializatua, desgaitua edo LGBTIQ+ kolektiboaren parte izanik. Horregatik, ezinbestekoa da begirada interseksionala edukitzea, generoa, beste faktore batzuen artean, klase sozialarekin, jatorriarekin, adinarekin, sexu-orientazioarekin edo administrazio-egoerarekin nola gurutzatzen den kontuan hartuko duena.

Ikuspegi juridikotik, esparrua argia da:

1/2023 Lege Organikoak, Sexu eta Ugalketa Osasunari buruzko 2/2010 Lege Organikoa aldatzen duenak, botere publikoak behartzen ditu genero-ikuspegia duen osasun-hezkuntza integrala

bermatzera, sexu- eta ugalketa-osasunari eta -eskubideei buruzko kalitatezko informazioa sortu eta zabaltzera, bizi-zikloaren etapa guztietan arreta espezializatua eskaintzera —berariaz barnean hartuta hilekoan, menopausian eta klimaterioan zeharreko osasuna—, osasun-langileak berdintasun- eta interseksionalitate-ikuspegitik prestatzera eta gai horiei buruzko ikerketa eta datu-ekoizpena sustatzera.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko 17/2019 Foru Legeak honako betebeharrak hauek ezartzen ditu: osasunaren eremuan genero-ikuspegia txertatzea, berdintasun-printzipioa txertatzea osasun-plangintzan, estatistiketan eta azterlanetan sexuarekiko eta generoarekiko sentikorrek diren aldagaiak sartzera, morbillitate diferentzialari buruzko ikerketa bultzatzea eta osasun-arloko langileen prestakuntza bermatzea giza eskubideetan oinarritutako genero-ikuspegian, osasun-arloko gizarte-desberdintasunak murrizteko tresna gisa.

Sexu- eta ugalketa-osasunaren eremu espezifikokoan, azaroaren 16ko 103/2016 Foru Dekretuak Nafarroako osasun-prestazioak antolatzen ditu, eta Emakumeen Arretarako Zentroak Sexu- eta Ugalketa-osasunaren Arretarako Zentro (CASSyR) bihurtzen ditu. Zentro horiek herritar guztiei irekita daude, eta arreta integrala eta diziplina anitzekoa eman beharko dute.

Legebiltzar honek lehen urrats garrantzitsu bat eman du 2025eko otsailaren 6an onetsitako 11-25/MOC-00010 mozioarekin.

Estatuan, Diputatuen Kongresuak menopausiari buruzko legez besteko proposamen bat onetsi du. Horren bidez, Gobernua premiatzen du menopausia goiztiarra eta ageriko sintomak dituzten emakumeen kasuak iker eta azter ditzan, aurremenopausian, menopausian eta klimaterioan informazioa eta osasun-arreta hobetu ditzan eta oinarri zientifikorik gabeko terapien ugartasuna berrikus dezan.

Nafarroa, beraz, ez da hutsetik abiatzen: arau-esparru sendoa du, Parlamentuak erabaki bat onetsi du, eta badu diagnostiko eta proposamen zehatzak egiten dituen mugimendu sozial eta profesionala.

Horregatik guztiagatik, uste dugu beharrezkoa dela Nafarroako Gobernuak klimaterioari eta menopausiari arreta integrala emateko foru-plan bat egitea, arlo horretako jarduketak antolatu eta koordinatzeko; legeetan jada aitortutako eskubideak nola ezarriko diren zehazteko; ukitutako emakumeek eta erakunde feministek egindako eskaerak integratzeko, eta berdintasun, ekitate eta osasun publikoko printzipioekin bat datorren arreta sanitario eta komunitarioa bermatzeko. Ez gara ari eskaera koiuntural berriez, baizik eta jada indarrean dauden betebeharrak

juridikoez, administrazio publikoak behartzen baituzte berdintasunaren printzipioarekin eta emakumeak eskubideen subjektu gisa aitortzearekin bat datorren arreta ematera klimaterioari eta menopausiari.

Azaldutako guztiagatik, erabaki-proposamen hauek aurkezten ditugu:

Lehenbizikoa.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gehienez ere hamabi hilabete epean taxutu dezan klimaterioari eta menopausiari arreta integrala emateko foru-plan bat, 1/2023 Lege Organikoarekin eta 17/2019 Foru Legearekin bat datorrena, genero-ikuspegia, giza eskubideen ikuspegia eta ikuspegi interseksionala dituen, eta departamentuarterko izaera izanen duena, eta inplikaturik dituen, gutxienez, osasunean, berdintasunean, hezkuntzan, gizarte-zerbitzuetan, enpleguan eta toki-administrazioan eskumena duten departamentuak, berariaz barne hartuta lan-arriskuen prebentzioa eta emakumeen lan-baldintzak egokitzea klimaterioan eta menopausian, sintomatologiak hala eskatzen duenean.

Bigarrena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du foru-planak gobernantza-sistema espezifiko bat jaso dezan, koordinaziorako departamentuarterko batzorde batekin eta parte hartzeko organo batekin, non ordezkaturik egon behar baita klimaterioan eta menopausian dauden emakumeak, osasun menstrualean eta klimaterioan espezializatutako erakunde feministak, pazienteen organizazioak eta sozietate zientifikoak, eta aholku emateko eta planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko eginkizuna izanen baitu.

Hirugarrena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du foru-planaren bidez definitu eta abian jar dadin klimaterioaren eta menopausiaren arloan erreferentziazkoak diren unitateen edo zirkuituen sare bat Nafarroako osasun-sistema publikoan, diziplina anitzeko taldeez hornitua (medikuntza, erizaintza, emaginak, pelbis-zoruaren fisioterapia, psikologia, sexologia, nutrizioa, endokrinologia, jarduera fisikoetako eta kiroleko profesionalak eta beste profil egoki batzuk), Oinarritzko Osasun Laguntzarekin koordinatuak, eta etapa horretan zehar emakumeen jarraipena egiteko erreferentziazko profesionalak eta bisita arautuak egon behar direla bermatuko duena, klimaterio eta menopausia osoan zehar laguntza jarraitua eta koordinatua eskainiz, erreferentziazko profesionalen eta bisita arautuekin.

Laugarrena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du foru-planak eredu prebentibo eta integral bat ezar dezan klimateriorako eta menopausiarako, honako hauek ziurtatuko dituena: kontsultan denbora nahikoa egotea osasunaren balorazio globala egiteko; arreta indibidualizatua bermatzea, entzuketan eta emakume bakoitzaren osasunaren balorazio globalean oinarritua, informazio-materialak ematek eta medikalizazio estandarizatutik harago doana, eta koordinazioa izatea enpleguaren arloan eskumena duen departamentuarekin eta lan-arriskuen prebentziorako zerbitzuekin, ordu-tegia malgutzeko, lanpostuak egokitzeko eta lan-espazioak hobetzeko neurriak sustatzeko.

Bosgarrena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du foru-planak barne har ditzan herritarrei zuzendutako informazio-, hezkuntza- eta ahalduzko-neurri espezifikokoak, hala nola klimaterioari eta menopausiari buruzko informazio- eta baliabide-atari publiko bat sortzea, irisgarria eta ebidentzia zientifikoa oinarritua; sentsibilizazio-ikastaroak, -tailerrak eta -programak abian jartzea toki-entitateekin eta elkarte-sarearekin lankidetzan, eta osasun publikotik eta/edo zerbitzu komunitarioetatik emandako laguntza-taldeak bultzatzea, esperientziak eta tresnak partekatzea ahalbidetuko dutenak prozesuaren autokudeaketa informaturako.

Ekintza horiek sarbidea eta egokitzapen espezifikoa bermatu beharko diete kalteberatasun bereziko egoeran egonik klimaterioa eta menopausia igarotzen ari diren emakumei eta pertsoneri, hala nola pobrezia edo gizarte-bazterketako egoeran daudenei, migratzaileei, arrazializatuei, desgaitasuna dutenei, landa-inguruneetan bizi direnei eta pertsona trans eta ez-binarioei, 1/2023 Lege Organikoan eta 17/2019 Foru Legean jasotako ikuspegi intersektionalarekin bat etorritik. Ekintza horiek bermatu beharko dute administrazio eskudunek informazio ulergarria eta kalitatezkoa modu aktiboan ematea emakumei, goiz —klimaterioa eta menopausia iritsi aurretik— eta prozesuaren bilakaera osoan zehar, haien kontura bilatu behar izan ez dezaten.

Seigarrena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du foru-planak klimaterioari eta menopausiari buruzko informazio-, ikerketa- eta ebaluazio-sistema bat taxutu dezan Nafarroan, sexuarekiko, generoarekiko eta beste mugatzaile sozial batzuekiko sentikorrek diren aldagaiak bilduko dituena estatistika, inkesta eta erregistro sanitarioe-

tan; klimaterioari eta menopausiari buruzko ikerketa-ildo espezifikokoak sustatuko dituena, 1/2023 Lege Organikoaren 11 bis artikuluekin bat etorritik; eta planak osasunean eta berdintasunean duen eragina ebaluatzeko adierazleak ezar ditzan, emaitzak aldizka argitaratuz eta Legebiltzar honi kontuak emanez.

Zazpigarrena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du foru-planak neurriak har ditzan osasun-produktuetarako eta ebidentzia zientifikoa duten laguntza-tratamenduetarako sarbidea hobetzeko, klimaterioaren eta menopausiaren sintomak arintzen eta bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko; besteak beste, honako aukera hauek jasoko ditu: pelbis-zoruaren fisioterapiarekin, lubrifikatzaileekin eta beste osasun-produktu eta terapia baliozkotu batzuekin lotutako prestazioak ematea edo indartzea, bai eta etapa horri lotutako osasun-produktuei dagokienez jada ezarritako zerga-neurriak berrikustea ere.

Zortzigarrena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Estatuko Gobernuak premia dezan osasun-esparruko unibertsitateko eta lanbide-heziketako graduetan (medikuntza, erizaintza, emaginak, fisioterapia, psikologia, gizarte-lana, etab.) sartzeko bermatu dezan, 1/2023 Lege Organikoarekin eta 17/2019 Foru Legearekin bat etorritik.

Bederatzigarrena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du foru-planak klimaterioari eta menopausiari buruzko etengabeko prestakuntza- eta eguneratze-programa espezifikoa bat jaso dezan, osasun-arloko eta beste zerbitzu publiko batzuetako profesionaleri zuzendua (bereziki, oinarriko osasun laguntza, ginekologia, emaginak, osasun mentala, fisioterapia eta gizarte-zerbitzuak).

Hamargarrena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du klimaterioan eta menopausian laguntza integrala emateko foru-planak barne har eta koordinatu ditzan, gutxienez, 2025eko otsailaren 6an onetsitako erabakian jada premiatutako neurriak (11-25/MOC-00010 mozioa), halako moduan non foru-plana mandatu horiek guztiak planifikatzeko, ezartzeko eta ebaluatzeko tresna izanen baita, bikoiztasunak, hutsuneak eta jarraipenik eza saihestuz.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Oihana Gallo San Román

11-26/MOC-00005. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita kirolari buruzko foru-lege proiektu bat taxutzeko lanak has ditzan

FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita kirolari buruzko foru-lege proiektu bat taxutzeko lanak has ditzan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Horren jarraipena Kultura, Kirol eta Turismo Batzordean eginen da.

Zioen azalpena

Indarrean den Nafarroako Kirolari buruzko Foru Legea 2001ean onetsi zen. Bi hamarkada luze joan dira indarrean sartu zenetik; bitarte horretan, kirolak aldaketa sozial, ekonomiko eta normatibo sakonak bizi izan ditu, hala estatuan nola European.

Urteotan, muntako aldaketak gertatu dira kirolari buruzko ikuskeran, osasun publikorako, gizarte-kohesiorako, berdintasunerako, inklusiorako, balioen hezkuntzarako eta garapen ekonomikorako tresna den aldetik. Halaber, kirol-errealitate berriak sortu dira, egungo araudiari nekez egokitzen zaizkionak: emakumezkoen kirola, kirol egokitua, oinarritzko kirola, zenbait diziplinaren profesionalizazioa, digitalizazioa edo kudeaketa-eredu berriak.

Horri gehitu behar zaio foru-legedia harmonizatu beharra dagoela estatuko ordenamendu juridikoan jasotako aldaketekin eta Europako nahiz nazioarteko organismoen gomendioekin, eta kirolari-

lari, klub, federazioen, toki-entitateen eta sektoreko profesionalen segurtasun juridikoa indartu beharra dagoela.

Nafarroako Gobernuak berak jendaurrean onartu du, aurreko legegintzaldian nahiz legegintzaldi honetan, kirolari buruzko lege berri bat taxutu beharra dagoela, indarrean dagoenaren ordez.

Gobernua osatzen duten alderdiek ere jasozten dute konpromiso hori “2023-2027 aldirako Nafarroako Gobernu aurrerakoi eta anitz baterako programa-akordioan” (23. orrialdea):

“Gure legeria nazioarteko eta nazioko esparruetara egokitzea, Kirolari buruzko Lege berriarekin, sektorea modernizatzeko, kirolarien eskubideak aitortzeko eta haiek babesteko, baita kirol-jardueraren zuzeneko eta zeharkako zerbitzu guztiak babesteko ere”.

Konpromiso hori, kontseilariak parlamentari honen galdera bati emandako erantzunaren arabera, Kirolari buruzko Plan Estrategikoaren mende gelditzen da (plana iragan urrian aurkeztu zen).

Galdera horretan berean, kontseilariak zioen Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak hasiak dituela barne-lanak egungo legea aztertzeko eta egin beharreko hurrengo jarduketak eta urratsak baloratzeko.

Bada, Nafarroako kirol-sistema osoari kalte egiten dion geldialdi-egoera hori murrizteko (izan ere, eragotzi egiten du sistema modernizatzea, egungo errokei egokitzea eta herritarren eskariei erantzuteko gaitasuna), Nafarroako Gobernuari proposatzen diogu helburu hori betetzea lehenets dezala, luza gabe haste aldera kirolari buruzko lege berri bat taxutzeko prozesua, sektoreko eragileekiko, toki-entitateekiko eta kirol-erkidegoarekiko elkarrizketan oinarrituta eta Nafarroari XXI. mendeko errealitate sozialaren arabera lege-esparru gaurkotu eta anbiziotsu bat ematera bideratuta.

Hori dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du kirolari buruzko foru-lege proiektu bat taxutzeko lanak has ditzan, parlamentu honetara onesteko ekartzeko modukoa, legegintzaldi hau amaitu aitzin, honako puntu hauen arabera:

a) Lege-proiektua taxutzeaz arduratuko den lantaldea eratzea.

b) Lege-proiektua taxutzeko beharrezkoak diren ekintzen kronograma prestatzea.

c) Kirolaren Nafarroako Kontseiluaren deialdi berezi bat egitea, baldin eta hori beharrezkoa balitz, lan horiek onesteko eta haren lankidetzak eskatzeko.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Francisco Javier Trigo Oubiña

11-26/MOC-00008. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita “Diagnostiko konplexuak dauzkaten familiei laguntza eta aholku integrala emateko figura” sor dezan

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita “Diagnostiko konplexuak dauzkaten familiei laguntza eta aholku integrala emateko figura” sor dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osasun Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioren eledun Javier García Jiménez jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osasun Batzordean eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Diagnostiko konplexuei aurre egin behar dieten familiek (hala nola gaixotasun arraroak, nahas-mendu neurologiko larriak, mendekotasun handiko desgaitasunak edo hasiera goiztiarreko patologia kronikoak) baliabideen zatiketak eta gainkarga administratibo eta emozionalak markatutako errea-

litatea daukate aurrez aurre. Diagnostiko bakoitzak berekin dakar sistema askotan ibili beharra: sanitarioa, soziala, hezkuntzako eta lanekoa; beraz, bikoiztu egiten dira izapideak, informazioa sakabanaturik dago eta ez dago koordinazio eraginkorrik.

Egoera horrek estres erantsia sortzen du une kritikoetan, hala nola diagnostikoaren hasierako inpaktuan, eskolara egokitzean, prestazioak eskatzean, bizitzako etapa berrietara igarotzean edo krisi klinikoak kudeatzean. Erreferente bakarra ez izatearen eraginez, familiek beren kasuaren "kudeatzaile" gisa jardun behar dute, ezagutza teknikorik eta laguntza nahikorik gabe, eta horrek areagotu egiten ditu zaugarritasuna eta desberdintasuna.

Laguntza eta aholkularitza integralerako funtsezko figura bat sortu beharra dago, dauden baliabideak ordeztuko ez dituen, baizik eta konektatu eta irisgarri eginen dituen, leihatila bakar eta sektore arteko koordinatzaile gisa arituko dena. Figura horrek zeregina izanen luke orientazio argi eta pertsonalizatuan, koordinazio eraginkorrean, eta bermatuko luke osasun-, gizarte- eta hezkuntza-ekipoek modu lerrotuan lan egitea, bikoiztasunak eta atzerapenak ekidinez. Familia-laguntzako plana, alegia.

Familiei izapide konplexuetan lagunduko lieke (desgaitasuna, mendekotasuna, laguntza ekonomikoak), karga burokratikoak murriztuz, eta abar.

Figura horrek, familien karga arintzeaz gain, baliabide publikoak optimizatuko lituzke, bikoiztasunak murriztuz, efizientzia hobetuz eta laguntzak garai iristen direla ziurtatuz. Gainera, lurralde-ekitate lortzen lagunduko luke, informaziorik ezak edo zerbitzuen sakabanaketak hiri- eta landa-eremuen artean desberdintasunak sortzea saihestuz.

Azken batean, administrazioa humanizatu nahi da, pertsona eta haren familia erdigunean jarritz, eta arreta integrala, koordinatua eta irisgarria izanen dela bermatuz.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiazten du:

1. "Diagnostiko konplexuak dituzten familiei laguntza eta aholkularitza integrala emateko figura" sor dezan. Erreferentziazko figura teknikoa izanen da, irisgarria eta zentralizatua, kasuen orientazio-

koordinazio- eta jarraipen-funtzioak dituen, sistema anitzeko premiak (osasuna, gizarte-zerbitzuak, hezkuntza, enplegua) dituzten diagnostiko konplexuei aurre egin behar dieten familientzat.

2. Leihatila bakarra sortzea, familiarentzako harremanetarako gune bakarra eta laguntza-ibilbide argia eskainiz.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-26/MOC-00009. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiazten baita etxegabetasunari erantzuteko politiken jarraipena egiteko koordinazio-esparru egonkor bat sor dezan

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrask jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiazten baita etxegabetasunari erantzuteko politiken jarraipena egiteko koordinazio-esparru egonkor bat sor dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Etxegabetasunaren fenomeno zabala eta konplexua da. Kasurik muturrekoena, icebergaren tonorra, etxerik gabeko pertsona deritzena da, espazio publikoan lo egin behar dutenena; baina hori dira,

orobat, etxebizitza dutenak, baina ez-segurua (utzarazpen-mehatxupean, adibidez); edo etxebizitza dutenak, baina desegokia (muturreko pilaketagatik, adibidez).

Europako zati handi batean, fenomeno hori areagotu egin da eta haren ezaugarriak aldatu egin dira, bereziki pandemiaren ondoren. Tamainari dagokionez, zaila da datu zehatzak lortzea. Hala ere, eta partzialak badira ere, artatutako pertsonen buruzkoak baitira bakarrik, kontuan har dezakegu etxerik gabeko pertsonen buruz EINEK egindako inkestako informazioa. Bertan adierazten zenez, 2012tik 2022ra, % 82 igo zen artatutako pertsonen kopurua, eta Espainiako estatuan, berriz, % 24. Análisi-fokua hurbilduz, Iruñeari buruzko datuak eman ditzakegu. Partzialak eta zeharkakoak ere badira, arreta-plazen kopuruaren bilakaerari buruzkoak baitira. Hala, 2023an 50 plaza baldin bazeuden etxerik gabeko pertsonentzat, gaur egun 155 plaza egonkor daude, eta beste 50 jartzen dira aparteko klima-aldietan.

Errealitate horren aurrean, 2020an, Eskubide Sozialerako Departamentuak diagnostiko bat enkargatu zuen: «Nafarroan etxerik ez duten pertsonentzako zerbitzuak berrantolatzekeko orientabideak». Diagnostiko horrek interes handiko ondorioak eta gomendioak ekarri zituen: beharrezkoa da etxegabetasuna prebenitzeko eta artatzeko estrategia eta eredu bat; prebentzioa garrantzitsua da; zerbitzuak profil berrietara egokitu behar dira; etxebizitzan oinarritutako ikuspegi baten alde egin behar da apustu, eta arreta-plazak lurraldeka handitzeko eta birbanatzeko beharra dago.

Eskubide Sozialetako Departamentuak 2024an aurkeztu zuen hurrengo txostena: "Nafarroan etxerik ez duten pertsonen arreta emateko ibilbide-orria". Bigarren txosten hori bat dator aurrekoarekin diagnostiko eta gomendio gehienetan, baina proposamen zehatzagoak ematen ditu. Txosten horren balio erantsietako bat izan zen erakundearteko talde tekniko batean oinarrituta egin zirela gomendioak (gizarte-erakundeak ere izan ziren talde horretako kide).

EH Bilduren iritziz, ezarri joan dira txosten horietan azaldutako gomendioetako batzuk. Hala ere, diagnostikoari eta aurrera egiteko aukerei buruz dagoen adostasun zabalari erantzuteko, uste dugu Nafarroako Gobernuak izan beharreko lidergoa indartu behar dela etxegabetasunaren fenomenoari erantzun sendo eta eraginkorra emateko.

Erabaki-proposamena:

Nafarroako Parlamentuak:

1. Nafarroako Gobernuak premiatzen du Etxebizitza eta Migrazio Politiken Departamentua eta Gizarte Eskubideen Departamentua buru izanen dituen koordinazio-esparru egonkor bat sor dezan, ibilbide-orria taxutzen parte hartu zuen talde teknikoaren esperientziatik abiatuta. Bertan, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak, toki-entitateek (gutxienez,

20.000 biztanle baino gehiago dituztenek) eta gizarte-erakundeek parte hartu behar dute. Koordinazio-esparru horretatik munta handiko helburuak lantzen ahal dira:

- Etxegabetasunari erantzuteko politiken jarraipena.
- Abordatze-eredu adostu bat eraikitzea.
- Eskualdeko edo udalerrien arteko zerbitzuen erantzunak bultzatzea, Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan.
- Gizarte Zerbitzuen Zorroa berrikustea, zerbitzuak (bermatuak zein bermatu gabeak) etxegabetasunaren profil berrietara eta gaiari heltzeko eredu berrietara egokitzeko proposamenak egin ahal izateko.

2. Gizarte-larrialdietako zerbitzu pilotu bat diseinatzea aurtan, Iruñerriari zerbitzua eman ahal izanen diona: 24-7 arreta; telefono bidezko informazioa eta aholkularitza; gizarte- eta osasun-zerbitzuekiko koordinazioa; akonpainamendu soziala eta laguntza emozionala; koordinazioa eremu judizialarekin, polizia-arekin eta espetxeekin; larrialdiko ostaturia, etab.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrás

11-26/MOC-00011. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita egungo landa-eskolaren egoera berariaz aztertzeke mahai bat bultza dezan

MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita egungo landa-eskolaren egoera berariaz aztertzeke mahai bat bultza dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentariari atxikitako parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Despopulazioa gure erkidegoari eragiten dion errealitate bat da. Despopulazio-arrisku larrian dauden herriak daude hemen. Era berean, guztiok esaten dugu egoera hori lehengoratzeko neurrien alde egiten dugula, departamentuek neurri eraginkorrak antolatzeke beharraz hitz egiten dute, eta abar.

Guretzat, behin baino gehiagotan defendatu dugun bezala, hezkuntza funtsezko zutabea da despopulazioari aurre egiteko. Herrien gizarte-kohesioaren zutabe bat da, eta, batez ere, eraginkortasunez eta kalitatez bete behar den premia bat da, biztanleria landa-inguruneetan finkatzeko.

Kezka hori etengabea da gurasoentzat, eta adierazle bat ere bada, zeinaren arabera ehunka familiak hirigune handietara joatea erabaki baitute, herrietan bizitzeari utzita.

Horregatik, hezkuntza-etapa guztietan hezkuntza-sarbidea eta -garapena behar adina baliabideekin bermatzea lehentasunezkoa izan behar da, baldin eta gure lurraldeari eragiten dion berehalako despopulazio-arazoari irtenbideak eman nahi badizkiogu.

Diskriminazio bat dago, berariazkoa edo kontzientea izan gabe landa-eremuaren kalterako gertatzen ari dena, eta, zalantzarik ez, horri heldu behar diogu. Egia da zona bakoitzak kasuistika espezifiko bat duela, bailara edo lurralde-eremu bakoitzak premia espezifiko batzuk dituela, eta horiei arreta eta irizpide jakin batzuekin heldu behar zaie. Ez du irtenbide berak balio guztientzat.

Horregatik, beharrezkoa ikusten dugu toki-erakundeekin elkarrizketa bat eta lan-mahai bat izatea, premia hartzeko eskolek behar dituzten premiei. Eskaera horiek honako hauek dira, besteak beste: garraioa, jantokiak hobetzea, ikastetxeak berritzeko laguntzak handitzea, dirulaguntza horietarako sarbidea hobetzea, eskolaz kanpoko jardueretarako sarbidea hobetzea...

2016-2017ko ikasturtean, Nafarroako Eskola Kontseiluak berariaz aztertu zuen Nafarroako landa-eskolaren egoera, eta harrezkero ez da berriz ere kontuan hartu hari buruzko legeria edo neurri espezifikorik.

Erabaki-proposamena:

Horrenbestez, Nafarroako Gobernua premia-tzen dugu:

1. Landa-eskolaren egungo egoerari buruzko berariaz aztertzeke mahai bat bultza dezan, Hezkuntza Departamentuak, "Landa Eskolen Sareak" eta hainbat gizarte-eragileren ordezkariak osatua, hala nola Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak, Gu Pirinioa elkarteak eta Cederna Garalur-ek, besteak beste.

2. Txosten berri bat egin dezan Landa Eskolen Sareak gaur egun dituen behar eta eskariekin eta etorkizuneko perspektibekin.

3. Herrien eskaerei erantzuteke hartu beharreko neurrien egutegia egin dezan.

4. Despopulazio-arriskuan dauden herrien hezkuntza-arloko dirulaguntzak eskuratzen lagundu dezan, azpiegitura horiek hobetzeko. Neurri espezifikoak izanen da, hala badagokio, dirulaguntzak jasotzeko oinarriak aldatzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

11-26/DEC-00004. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baitu Irango diktadura-erregimenak egindako giza eskubideen urraketa larria, erailketa masiboen bidez erantzuten ari baita herritarren berme demokratikoen eskaerari

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2026ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baitu Irango diktadura-erregimenak egindako giza eskubideen urraketa larria, erailketa masiboen bidez erantzuten ari baita herritarren berme demokratikoen eskaerari.

2. Irango biztanleriarekiko elkartasuna adierazten du; izan ere, modu baketsuan gauzatzen ditu adierazpen-, elkartze- eta parte-hartze politikorako eskubideak, eta ikusi du justizia sozialaren, berdintasunaren eta oinarrizko eskubideekiko errespetuaren aldeko eskaerak basatiki zapaldu dituela herrialde horretako erregimenak.

3. Espresuki babesten ditu Irango emakumeak; izan ere, oraindik ere egiturazko diskriminazioa jasaten dute, bai eta jazarpen espezifikoak ere, berdintasunaren eta beren eskubideen errespetuaren aldeko borrokan. Nafarroako Parlamentuak azpimarratzen du garrantzitsua dela emakumeek berdintasunerako, adierazpen-askatasunerako eta autonomia pertsonalerako duten eskubidea bermatzea.

4. Irango agintariei eskatzen die erabat errespetatzea giza eskubideei buruz nazioartean dituzten betebeharrak, errepresioa berehala etetea barne”.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-26/POR-00015. Galdera, indarkeria matxistako kasuen detekzio goiztiarrari buruzkoa

MARÍA TERESA ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Esporrín Las Heras andreak egindako galdera, indarkeria matxistako kasuen detekzio goiztiarrari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Maite Esporrín Las Heras andreak, Parlamentuko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Emakumeen aurkako indarkeria gure gizarteko desberdintasunaren adierazpenik muturrekoena da, eta administrazio guztion ardurua da hori desagerraraztea. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan, 2025eko lehen zazpi hilabeteetan, aurreko urteko aldi berean baino % 5,4 indarkeria-kasu gehiago detektatu dira.

Zer neurri hartzen ari da departamentua eta zer protokolo du ezarrita indarkeria matxistaren kasuak goiz detektatzeko?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

11-26/POR-00023. Galdera, Nafarroako Osasun Zerbitzuko lan-esparruko sexu-jazarpeneko kasuen ikerketari eta horietarako protokoloei buruzkoa

MARÍA TERESA ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Esporrín Las Heras andreak egindako galdera, Nafarroako Osasun Zerbitzuko lan-esparruko sexu-jazarpeneko kasuen ikerketari eta horietarako protokoloei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Maite Esporrín Las Heras andreak, Parlamentuko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gure herrialdean bizi diren 16 eta 74 urte bitarteko emakumeen % 28,4 sexu-jazarpenaren biktima izan da lan-eremuan, Eurostatek koordinatutako Genero Indarkeriaren Europako Inkestaren arabera. Kasuen % 88,5ean erasotzailea gizona zen.

Duela gutxi, Nafarroako Osasun Zerbitzuko emakumezko langile baten aurkako ustezko jazarpen-kasu baten salaketa ezagutu dugu.

Zertan da egun egiten ari den ikerketa eta zer protokolo du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak kasu hauetarako?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

11-26/POR-00024. Galdera, migrazio-aukeraren aldeko departamentuarterko lehenbiziko batzordeari buruzkoa

MARÍA OLGA CHUECA CHUECA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Olga Chueca Chueca andreak egindako galdera, migrazio-aukeraren aldeko departamentuarterko lehenbiziko batzordeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Olga Chueca Chueca andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Esku-bide Sozialetako, Ekonomia Sozialetako eta Enplegu-kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaien:

Nafarroako Gobernuak, Etxebizitzako, Gazteriko eta Migrazio Politiketako Departamentuak proposatuta, Migrazio-aukeraren aldeko departamentuarterko lehenbiziko batzordearen sortzea, bai eta haren osaera ere, erabaki du.

Zer helburu bilatzen du Gobernuak departamentuarterko batzorde berri hau eratzean?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: Olga Chueca Chueca

11-26/PES-00004. Galdera, 3x3 saskibaloiko Liceo Monjardín taldeko jokalariek goi-mailako kirolari izaera edukitzearen baldintza betetzeari buruzkoa

FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galdera, 3x3 saskibaloiko Liceo Monjardín taldeko jokalariek goi-mailako kirolari izaera edukitzearen baldintza betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

3x3 saskibaloiko Liceo Monjardín kirol klubeko arduradunen eta Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuko zuzendariaren arteko bilere-tan sortutako zalantzen aurrean, betetzen al dituzte 2025eko Espainiako Junior Txapelketan 3. lekuan sailkatuta dauden klub horretako jokalariek Nafarroan goi-mailako kirolari izateko gaur egungo araudian ezarritako baldintzak?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Javier Trigo Oubiña

11-26/PES-00005. Galdera, biktimak babestearren hartutako neurriei buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, biktimak babestearren hartutako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Jendaurrean salatu den O-NOZeko sexu-jazarpeneko kasua dela-eta, biktimak babesteko zer neurri hartu da, eta noiz hartu da, P-14-Rev 2 protokoloak ezartzen duenaren arabera, ustezko eraso-tzaileak eta biktimak ez dezaten lan-ingurunea partekatu?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-26/PES-00006. Galdera, O-NOZeko lan-giroari buruzko azken inkestan sexu-jazarpenerako komentarioak egin direla-eta hartutako neurriei buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, O-NOZeko lan-giroari buruzko azken inkestan sexu-jazarpenerako komentarioak egin direla-eta hartutako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

O-NOZek eta/edo Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak zer egin dute, ikusita zenbait langilek lan-giroari buruzko azken inkestan lan-esparruko sexu-jazarpenerako jarrerari buruz egindako komentarioak?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-26/PES-00007. Galdera, kotizaziopeko pentsioen eta alargun-pentsioen gutxienerako osagarriak bultzatzeari buruzkoa

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak egindako galdera, kotizaziopeko pentsioen eta alargun-pentsioen gutxienerako osagarriak bultzatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Miguel Garrido Solak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Osoko Bilkurak zerga-neurriei buruz onetsitako azken legean, kotizaziopeko pentsioen eta alargun-pentsioen gutxienerako osagarriak bultzatzea ezartzen da. Horri dagokionez, honako hau jakin nahi dugu:

Zenbat pertsonari eraginen dio arau-aldaketak eta zer baldintzek mugatzen dute osagarriak eskuratzeko aukera?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Miguel Garrido Sola

11-26/PES-00008. Galdera, Antxon Alonso Egurrola jaunarekin izandako bilerei buruzkoa

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako galdera, Antxon Alonso Egurrola jaunarekin izandako bilerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen José Javier Esparza Abaurreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilari Javier Remírez Apesteguía idatziz erantzun diezaien:

Antxon Alonso Egurrola jauna ezagutzen al duzu?

Nafarroako Gobernuako kontseilari izan zinen aurreko aldian, inoiz bildu al zinen berarekin edo Servinabar enpresako inorekin?

Hala baldin bada, adierazi bilera zer egunetan eta non egin zen eta nork parte hartu zuen eta zer gai jorratu zen.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea

11-26/PES-00009. Galdera, “Lur-bankua” ekimenari buruzkoa

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, “Lur-bankua” ekimenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, Nafarroako Gobernuak, INTIAren parte-hartzearekin eta nekazaritza-ustiategietan belau-naldi-berritzeari begirako prozesuekin lotuta, Lur-bankua izeneko ekimena abian jartzeari buruzko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

1. Zein da Nafarroako Gobernuak bultzatutako Lur-bankua izenekoaren sorreraren eta funtzionamenduaren oinarri normatibo, juridiko edo administratiboa?

2. Zer helburu zehatz ditu ekimen horrek eta zer dokumentu ofizialetan jasotzen dira helburu horiek?

3. Zer eginkizun zehatz betetzen du INTIAk Lur-bankuan (kudeaketa, bitartekaritza, aholkularitza, ustiatgien esleipena edo beste), eta zer titulu juridikoren pean jarduten du?

4. Ekimen honi dagokionez, Nafarroako Gobernuak edo INTIAk banakako jakinarazpenik bidali al die jubilaziotik gertu dauden nekazariei?

- Erantzuna baiezkoa bada, zenbat komunikazio bidali dira eta noiztik?

5. Borondatezkoa al da nekazariak Lur-bankuari atxikitzea eta zer berme daude Administrazioaren esku-hartzearen ondoriozko obligazio-perzeptzio oro ekiditeko?

6. Ba al dago laguntza publikorik, dirulaguntzarik edo pizgarri ekonomikorik Lur-bankuan parte hartzeari edo INTIAren zerbitzuak kontratatzeari lotuta?

- Erantzuna baiezkoa bada, zer ekoizpen-sektoretara mugatzen dira eta zergatik?

7. Baloratu al da ekimen honek Nafarroako nekazaritzako elikagaien kooperatibetan duen eragina, bereziki lotutako hektareen jarraitutasunari, lurralde-sustraitzeari eta kooperatiba-ereduari dagokienez?

8. Kontsulta egin al zaie Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Kooperatiben Batasunari (UCAN) edo kooperatiba-sektorea ordezkatzan duten beste entitate batzuei Lur-bankua taxutu edo ezartzeko orduan?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-26/PES-00010. Galdera, Nafarroako Inbertsio Institutuak sektore estratetikokoak sendotze aldera inbertsio berri bat egiteari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Nafarroako Inbertsio Institutuak sektore estratetikokoak sendotze aldera inbertsio berri bat egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Erkidegoaren egoerari buruzko 2025eko eztabaidan, azaroaren 13an, Gobernuako lehendakariak adierazi zuen urtea amaitu aitzin itxiko zela Nafarroako Inbertsio Institutuan inbertsio berri bat, sektore estratetikokoak sendotzen jarraitzeko.

Zer inbertsio berri buruz ari zen lehendakaria? Gauzatu al da?

Gauzatu ez bada:

– Zergatik ez da gauzatu?

– Baztertu egin al da?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-26/PES-00011. Galdera, LH Dualeko ikasle errepikatzailen lantoki-prestakuntzarako neurriei buruzkoa

MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, LH Dualeko ikasle errepikatzailen lantoki-prestakuntzarako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuaren Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno jaunari, idatziz erantzun diezaion:

LH dualerako prestakuntza-aldaketak aurrerabidea ekarri du hezkuntzaren arloan. Hala ere, eredu-trantsizio horrek aurreikusitako gabeko problematika bat ere sortu du eredu zaharreko ikasle errepikatzailen lantokiko prestakuntzari dagokionez. Gaur egun, lantokiko prestakuntza hasteko zain dauden ikasleak daude egoera horretan.

Hori dela eta, zer neurri hartuko ditu Hezkuntza Departamentuak egoera errepikatu ez dadin?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

11-26/PES-00012. Galdera, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioaren hezkuntza-eskaintza handitzeari buruzkoa

MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioaren hezkuntza-eskaintza handitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuaren Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno Gurpegi jaunari, idatziz erantzun diezaion:

Gure hezkuntza-sistema osoaren internazionalizazioaren eta errekonozimenduaren barruan, galdera hauek egin nahiko genituzke:

Aurreikusita al dauka Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioaren hezkuntza-eskaintza handitzea, ematen diren musika-tresnen espezialitateak handituz? Zehazki, nafar gaita-dultzaina ikasketak etorkizuneko ikasturteetan Nafarroako Goi Mailako Musika

Kontserbatorioan sartzea aurreikusten al du departamenduak? Erantzuna ezezkoa bada, zer arrazoi tekniko, akademiko edo normatiboren arabera ez da aintzat hartzen prestakuntza-eskaintza hori zabaltea?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

11-26/PES-00013. Galdera, Nagoreko mahaia deitzeari buruzkoa

MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, Nagoreko mahaia deitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilari Oscar Chivite Cornado jaunari, idatziz erantzun diezaien:

Departamentuak noiz deituko du Nagoreko mahaia?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

11-26/PES-00014. Galdera, eko-herrixketako espazio komunen kudeaketari eta erregularizazioari buruzkoa

MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, eko-herrixketako espazio komunen kudeaketari eta erregularizazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilari Oscar Chivite Comado jaunari, idatziz erantzun diezaión:

Eko-herrixken arautzeari dagokionez:

Departamentuak nola kudeatuko eta erregulizatuko ditu eko-herrixketako espazio komunak, Lakabekoa kasu?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

11-26/PES-00015. Galdera, Virgen del Camino Ikastetxe Integratuko ikasleen lantokiko prestakuntzari buruzkoa

ENKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Virgen del Camino Ikastetxe Integratuko ikasleen lantokiko prestakuntzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Nafarroako Gobernuari eskatzen dio idatzizko galdera hauei erantzun diezaien.

2024-2025 ikasturtean Lanbide Heziketako lege berria indarrean jarri zen. Horrek ekarri zuen ikastetxeetan aldi berean bi plan batera egotea: Lanbide Heziketa Duala (berria) eta Lantokiko Prestakuntza (zaharra). 2025-2026an ere bi planak uztartzen ari dira. Horrek esan nahi du 1. eta 2. mailan plan berriko ikasleak daudela, eta, aldi berean, plan zaharreko 2. mailako ikasle errepikatzaileak ere bai.

Virgen del Camino Ikastetxe Integratuko Zentroko irakasle eta gurasoek, ordea, adierazi dute Hezkuntza Departamentuak ez zuela egoera hori behar bezala aurreikusitako. Eman zuten informazioaren arabera, irailean Lantokietako Prestakuntzako praktikak egiten hasi beharko zuketean hainbat ikasle errepikatzailek orain hasi edo hasiko dituzte praktika horiek. Moduloren bat gainditu gabe duten 89 ikaslek, ordea, martxoan hasi beharko luketela Lantokietako Prestakuntza.

Noiz egingo dute ikasle horiek Lantokietako Prestakuntza?

Zenbat orduko dotazioa izango du ikastetxeak praktika horiek koordinatzeko eta zuzentzeko?

Departamentuak eman al du agindurik Lantokietako Prestakuntza horien jarraibideei buruz?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-26/REPA-00001. Talde parlamentarioek 2026. urtean jasoko dituzten dirulaguntzak

2026ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak txosten bat aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuaren 2026. urterako aurrekontu-proiektuan talde parlamentarioendako onetsitako dirulaguntzei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 39 eta 42. artikuluek xedatuarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Ezartzea ezen, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, talde parlamentarioendako dirulaguntzek gehikuntza izanen dutela; hain zuzen ere, 2025eko abenduaren 31n indarrean zeudenen ehuneko 2koa.

2. Onestea, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, talde parlamentarioek jasoko dituzten ordainsariak. Honako hauek izanen dira:

a) Dirulaguntza finkoa: 8.976,57 euro/hilabete/talde parlamentario.

b) Dirulaguntza aldakorra: kontzeptu hauetatik suertatzen den batura:

– Funtzionamendu-gastuak: 1.621,98 euro/hilabete/parlamentari.

– Antolaketa-gastuak: 1.240,16 euro/hilabete/parlamentari.

– Langile- eta jarduera-gastuak: 4.627,70 euro/hilabete/talde parlamentarioko bost parlamentari bakoitzeko edo zatikiko.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/REPA-00003. Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 2026. urterako ordainsariak

2026ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak txosten bat egin du Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 2026. urterako ordainsariei buruz.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Lehendakariaren Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Ezartzea, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, Legebiltzarreko Mahaiak 2003ko abenduaren 30eko Erabakiaren bitartez onetsitako irizpideak aplikatu daitezela Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsariak zehazte aldera.

2. Onestea, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, lehendakariaren urteko ordainsari gordina 84.579,60 eurokoa izanen dela.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/REPA-00003. Foru parlamentarien 2026. urterako ordainsariak

2026ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak txosten bat egin du foru parlamentarien 2026. urterako ordainsariei buruz.

Foru parlamentarien ordainsariei buruzko arautan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 17., 19. eta 42. artikuluetan xedatutakoari jarraituz, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Onestea, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kide izanik lanaldi osoko araubideari atxikita dauden foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 69.545,70 eurokoa izanen dela.

2. Onestea, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, lanaldi osoko araubideari atxikitako gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 61.816,58 eurokoa izanen dela.

3. Onestea, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kide izanik lanaldi osoko araubideari atxikita ez dauden foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 52.178,98 eurokoa izanen dela.

4. Onestea, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, lanaldi osoko araubideari atxikita ez dauden gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 46.362,68 eurokoa izanen dela.

5. Ezartzea ezen, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, foru parlamentariak jasoko dituzten ordainsariak handitu eginen direla Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzupeko langileentzat 2026rako ezartzen duen gehieneko gehikuntza globalaren zenbatekoan.

6. Agintzea argitara dadila Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/REPA-00004. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioek eta kontratudunek 2026. urtean jasoko dituzten ordainsariak

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 19an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak, indarrean dagoen araudiari jarraituz, txosten bat egin du, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioen eta kontratudunen ordainsariei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraituz, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Lan-maila bakoitzak duen hasierako soldata onestea. Honako hauek dira 2026rako zenbatekoak:

Lan-maila	Urteko zenbatekoa
A	31.622,50 euro
B	26.602,94 euro
C	22.068,34 euro
D	19.219,48 euro
E	16.905,84 euro

2. Ezartzea ezen, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko langileen ordainsariak handitu eginen direla Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzupeko langileentzat 2025erako ezartzen duen gehieneko gehikuntza globalaren zenbatekoan.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/REPA-00004. Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileek 2026. urtean jasoko dituzten ordainsariak

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 19an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzaitza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak txosten bat egin du Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko behin-behineko langileen 2026rako ordainsariei buruz.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Onestea, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, jarraian zerrendaturiko behin-behineko langileen ordainsari gordinak:

– Lehendakariaren kabineteburua: 63.331,80 euro.

– Lehendakariaren idazkaria: 47.640,74 euro.

– Mahaiko kideen idazkaria: 38.548,72 euro.

– Talde parlamentarioen laguntzaileak: 38.548,72 euro.

2. Ezartzea ezen, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupuan diharduten behin-behineko langileen urteko ordainsari gordinak handitu egingen direla Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzupeko langileentzat 2026rako ezartzen duen gehieneko gehikuntza globalaren zenbatekoan.

3. Behin-behineko langileei aplikatzea Mahaia- ren 2012ko abenduaren 17ko eta 2024ko abuztuaren 6ko Erabakien bidez zerbitzu-aitorpenari buruz onetsitako irizpideak.

4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/REPA-00006. Foru parlamentariet nahiz Legebiltzarraren zerbitzuko langileek egindako bidaia ofizialengatiko 2026. urterako ordainsari-araubidea

2026ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Bartzarari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzaitza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak txosten bat aurkeztu du, foru parlamentariet nahiz Legebiltzarraren zerbitzuko langileek egindako bidaia ofizialengatiko ordainsari-araubideko zenbatekoei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 17 eta 42. artikuluek xedatuarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Eguneratzea, 2026. urterako, foru parlamentariet egiten dituzten bidaia ofizialengatiko eta Legebiltzarreko langileek zerbitzu-ematearen kariaz egiten dituztenengatiko ordainsarien araubideari dagozkion zenbatekoak. Honako hauek izanen dira:

– Nafarroatik kanpora eginiko bidaia ofizialengatiko ordainsariak (mantenu-gastu arruntak): 58,30 €/egun.

– Atzerrira eginiko bidaia ofizialengatiko ordainsariak (mantenu-gastu arruntak): 93,50 €/egun.

– Lokomozio-gastuengatiko ordainsaria: 0,37 €/kilometro.

2. Maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduko 8. artikuluan xedatutakoarekin bat, honako hauek dira kargasalbupea duten zenbatekoen mugak 2026rako: mantenu-gastuengatik, Espainiako lurraldearen barneko joan-etorriak direnean, 58,34 euro egun bakoitzeko, eta atzerrira eginiko bidaiak direnean, 99,91 euro egun bakoitzeko; lokomozio-gastuengatik: 0,35 euro kilometroko, gehi justifikaturiko bidesari- eta aparkaleku-gastuak.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/REPA-00006. Foru parlamentarien ordainsariei buruzko arauen 9.4 artikulua aldatzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2026ko urtarrilaren 19an, Mahaiak eta Eledunen Batzarrak jasotzat eman dute Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak Foru parlamentarien ordainsariei buruzko arauen 9.4 artikulua aldatzeari buruz egindako txostena.

Aipatu txosten hori kontuan hartuta, eta legelari nagusiak aldeko iritzia adierazita, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 17. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Foru parlamentarien ordainsariei buruzko arauen 9. artikuluko 4. apartatua aldatzea. Hauxe izanen du testu berria:

“4. Iruñetik kanpo bizi diren foru parlamentarietarako ordaina jasoko dute deituak diren parlamentu-bilkuretara etortzeagatik ordaindutako lokomozio-gastuengatik, bai eta Nafarroako Parlamentuko

Mahaiak baimendutako eta egoitza barruan egiten diren ekitaldi instituzionaletara etortzeagatik egindakoengatik ere, ekitaldi horietara gonbidatuak badira. Hala, hilerio, eginiko kilometroei dagokien zenbatekoa ordainduko zaie, eguneko kalte-ordain bat gehienez ere, edo bestela, hiriarteko garraio publiko ez-diskrezionala erabiltzeagatik egindako gastua itzuliko zaie, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu ondoren. Bizilekutzat hartuko da kasuko foru parlamentaria erroldatuta dagoen udalerria”.

2. Arauak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias